

Kultura

Xabier Amurizaren berbaldiagaz ekingo diote,
datorren egunean, Hitzez eta Ahotsez ekimenari > 12

JAIK!

BERRIZ

Muniketako bideko zaintza areagotuko dute auto igoera arriskutsuak eragozteko

Artatzatik Muniketarako igoeran abiadura handian auto igoera arrisku-
tsuak egiten dituztela salatu dute hainbat auzokidek. Iñaki Totorikaguena
Iurretako alkateak azaldu duenez, kexa formalik jaso ez duten arren, badute
horren berri. Foru bidea denez, horren zaintza Ertzaintzari dagokio. "Abisua
eman dugu, eta zaintza areagotuko dutela esan digute". > 3

"Ni orain naizena izatera Josetxo Areitiori esker heldu naiz" > 13

Aitor Elordi | Aspeko pilotaria



11.500 sinadura A-8ko bidesariaren aurka

Durangaldean A-8ko bidesaria kentzea eskatzen duen
plataformaren sorrerak eta 'change.org'-en sinadura
bilketak -11.500 sinadura dagoeneko- eztabaida zaharra
mahaigaineratu dute. Diskriminatzailea al da A-8ko Bizkaiko
zatian Durangaldekoea izatea ordainpeko bakarra? > 4

Lehior Elorriaga



◆◆◆ Urte berri on! ◆◆◆



Barrenkalea, 28 | 946 817 918 | www.naturalkibelardenda.com

Durango > 2

Bateginezek 45.000 euro
banatu ditu azken ekintza lez

Abadiño > 8

Astlehenean TAO sistema
martxan izango da Matienan

Mallabia > 8

22 farolatako bateriak lapurtu
dituztela salatu du udalak

Otxandio > 8

Otxandioko istripua salatu dute
sindikatuak elkarretaratzean

Muniketako bideko zaintza areagotuko dute auto igoera arriskutsuak eragozteko

Artatzatik Muniketarako igoeran autozaleak abiadura handian joaten direla salatu dute auzokideek



Zornotza eta Muxika dira errebuelta estuak hartzen dituen Muniketarako errepidearen zati nagusia.

IURRETA Aitziber Basauri
Bistakoak dira gorpil markak Artatzatik Muniketarako igoeran; gaztetasunari egotzitako eromenak utzitako arrastoak. Errepide zabalak eta errebuelta

estuek lasterketa zaleak erakarzen ditu, abiadura egarritz.

Oromiñoko San Marko auzoan bizi da Kepa Arroitauregi, Muniketako igoeraren hasieran. Sarritan entzun ditu motor

hots eta derrapatzeak: “Goma hotsak eta balaztadak entzuten dira; argiak gauetan. Baina, gertutik, lantzean behin sufritu izan ditugu”. Muniketan gora ibiltzen dira: “Gernikan lan eginda

goizaldean etxera bueltan, ikusi ditut autoak bide bazterrean”.

Iñaki Totorikaguena alkateak azaldu du badutela horren berri, kexa formalik jaso ez duten arren. Eskumena Ertzaintzarena da, foru bidea da-eta: “Abisua eman dugu, eta zaintza areagotu dutela esan digute, Gernikako ertzainetxeagaz koordinatuta”. Kontuan hartu behar da, Muniketarako errepidea nagusiki Zornotza eta Muxikarena dela.

“Adrenalina askatu guran”

Lasterketak egiten direla ukatu du Abadiñoko Iban Tarsicio auto gidariak: “Lasterketak gustuko dituzten 18-19 urteko gazteak dira. Gaez dabilta ia zirkulaziorik ez dagoelako, eta arrisku gutxiago ere bai; argiak urrunetik ikusten dira”. Auzokoen ardura ulertzen du hamar urtetik gora lasterketetan ari denak, eta bat etorri ez arren, “beste aukerarik

ez dutela” dio. “Adrenalina askatu gura dute, arriskua hartuz, ez dute-eta baimenik, eta mina har dezakete”. Gidarien irudiari kalte egiten dioten galdetuta, dio “arrisku bila ari diren zorotzat” jo dituztela askotan: “Gurago genuke zirkuitu publiko bat, seguru ibiltzeko. Baina ez dago batere EAEn. Gertuen, Miranda Ebron dago. Lasterketa ofizialak ditugu guk entrenamendu”.

Lasterketeki mesede eskasa

Jokaera horiek mesede eskasa egiten diete auto lasterketei. Durango Racing-eko Aketza Santa Colomaren esanetan “denok pasa dugu gaztetako zera hori, baina ez da zentzuzkoa, ezin da onartu, inoren segurtasuna arriskuan jartzea”. Muniketarako Igoera izaten zenean nabarmendu zen bidea.

Lasterketetan ari direnen irudia kaltetzen dutela dudarik ez du Santa Colomak: “Lasterketa bat antolatzeak, lana, dirua, baimenak eskatzen ditu, eta ez guk ezta auzokoez ere ez dugu zertan holako jokaerarik sufritu”. Urkiolako Igoera ekarri du gogora; “hainbat arazo sortzen dira antolatzeko orduan, baina, ez dugu gaitasunik horri aurre egiteko”.

Inbertsioak non egin bozkatuko dute datorren asteko batzarretan

Martitzenean, herriguneko batzarra egingo dute, eta egunean, auzoetakoa

BERRIZ Amaia Ugalde
Udal aurrekontuko 150.000 euro zertara bideratu erabakitzeko foroak datorren astean amaituko dira. Abenduan 40 ideia inguru batu ziren lehen batzarretan, eta orain, teknikariak balorazio tekniko eta ekonomikoa egin ostean, proposamenetatik zein aukeratu erabakitzeko ordua da. Datorren astean, bideragarri izan daitezkeen inbertsioen zerrenda ezagutaraziko dute batzarretan, eta herritarrek bozkatzeko aukera izango dute.

Aurrekontu parte-hartzaileen foroak bitan banatuta dau-

de; herriguneko inbertsioetarako batzarra dago batetik, eta auzoetakoa, bestetik. Martitzenean, herriguneko batza-

Abenduan, 40 ideia inguru batu ziren lehen batzarretan, eta orain, bozkatzeko ordua da

rra egingo dute, eta egunean, auzoetakoa. Batzarrak 19:30ean hasiko dira, kultur etxean.

Herrigunean inbertitzeko 100.000 euro nora bideratu era-

baki behar dute, eta auzoetako ekimenetarako, 50.000 euro dituzte zertan inbertitu erabakitzeko.

Abenduko batzarretan hogeita hamaika berriztarrek parte hartu zuten; hogeik herriguneko foroan eta hamaikak auzoetakoan. Herritar norbanakoak eta elkarteetako ordezkariak izan dira batzarretan.

Orland Isoird alkateak batzarretara joateko gonbidapena egin du, eta udal teknikariak hila betean egindako lana eskertu du: “lan handia da proposamen guztiak aztertu eta baloratzea”.

Hilaren 22ra arte batuko dute Sahararako materiala

Udaletxean, eskoletan eta dendetan da bilketa

BERRIZ J.G.
Datorren barikuan amaituko da Sahararen Aldeko Euskal Karabanaren hamabigarren ediziorako material bilketa, Berrizen. Urtarrilaren 8an hasi zuten bilketa, eta udaletxean (10:00etatik 14:00etara), dende-

Sardinak oliotan, arroza, azukrea, konpresak, hegazuza oliotan eta lekaleak eskatzen dituzte

tan eta ikastetxeetan batzen dabilta Tindufira (Aljeria) bideratzeko produktuak. Ekimenaren bultzatzaileek sardinak oliotan, arroza, azukrea, konpresak, hegazuza oliotan eta lekaleak eskatzen dituzte.

Berrizen bezala, Durangaldeko beste hainbat herritan ere Saharara bidaltzeko materiala batzeko kanpaina jarri dute martxan. Horrela, azken hamaika urteotan bezala, Durangaldean batzen denagaz kamioia beteko dute sahararren errefuxiatu kanpamentuetara bidaltzeko.

KURUTZIA GAIKASTOLA
ezagutu gaitzazu!

0-18 urte bitarteko eskaintza!
MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK!
URTARRILAREN 25etik OTSAILAREN 3ra
www.kurutziagaikastola.eus

Bisita gidatuak urtarrilaren 23an. Deitu eta hartu hitzordua! 946 200 822

dagigun!

IBILALDIA 2016
DURANGO

A-8ko bidesarien aurka 11.500 sinadura batu, eta mobilizazioak iragarri dituzte

Juan Carlos Poderoso, plataformaren sustatzailea: “Durangaldean zerga bikoitza ordaintzen dugu”

DURANGALDEA J.G. /M. O. Urte berriagaz batera, A-8 autobideko bidesariak %2,5 igo dira, eta Durangaldean asfaltiko polemika dena berriro indartu da. Herritar ugari

diskriminatuta sentitzen dira, Durangaldekoka delako derrigorrean ordainduta egin behar den Bizkaiko tarte bakarra. Lehenik, internet bidez sua bezala hedatu zen protes-

ta, eta sinadurak batzen hasi ziren www.change.org atarian. Gero, kritika birtual hori kalera ere heldu zen, eta bidesarien aurkako plataforma sortu da dagoeneko. 11.500 sinadura

batu dituzte momentuz, eta, aurrera begira, mobilizazio eta ekintza berriak egingo dituztela iragarri dute.

“Diskriminazio bidegabea”

Autobideko bidesariena “diskriminazio bidegabea” dela dio Juan Carlos Poderosok, plataformaren bultzatzaileetako batek. “Durangaldean zerga bikoitza ordaintzen dugu”. Horrela, bidesaria kendu eta autobidea zergen bidez finantzatzea eskatuko dute. Duela pare bat aste eratu zuten taldea, eta martitzenean lehenengo batzarra burutu zuten 40tik gora lagunek. Klean ere sinadurak batzeko mahaia ipiniko dituzte hurrengo egunetan, batez ere jende nagusiak internetez sinatu ezin izan duela ikusita. Asteburu honetan bertan, Berrizko San Antonio jaietan egongo dira taldekide batzuk.

Martitzenero batuko dira Durangoko Pinondo Etxean, eta datorren astean lan-taldeka aztertuko dituzte pauso berriak. EH Bildu eta Herriaren Eskubideak plataforma babestu dute, eta euren bidez mozioak aurkeztuko dituzte udaletan. Helburua, gaia Batzar Nagusietara ailegatzea da, araua aldatu ahal izateko.

Aldundiaren deskontuak

Hain zuzen ere, protesten oihartzuna Aldundira ailegatu da. Elena Unzueta bozeramaileak asteon adierazi du erabiltzaileentzako laguntzak eskaintzen dituztela, eta horren berri emateko informazio kanpaina bat egingo dutela Durangaldean. Gaur egun 7.160 lagun daude izena emanda, 2.034 Durangaldekoka.

Iurretatik Bilbora, esaterako, 2,14 eurotik 2,18 ordaintzera pasatu da aurten, eta deskontuagaz 1,19 ordainduko litzateke. Edozelan ere, Poderosoren ustez, Aldundiaren proposamen horrek “ez du arazoa konpontzen”.

Bidesariak kentzearen aldeko ahotsak gero eta gehiago dira. Autobidea kolapsatuko delakoan, bonuak sortzea gurago duenik ere badago. Eztabaida bizi dago, eta zer esana emango du.



Plataforma sortzeko lehenengo batzarra Durangoko merkatu plazan egin zuten. Lehiar Elorriaga



Marian Diaz de Gorriti
Durango

A8aren ohiko erabiltzailea zara? Zein maiztasunegaz erabiltzen duzu? Egutero hartzen dut autobidea Bilbora lanera joateko. Beraz, bost joan-etorri egiten ditut astean. Hilean 90 euro inguruko gastua dakarkit horrek. Kontuan hartu behar da, Interbiaken diru-laguntza eskatuta hileko 20 euro itzultzen dizkidatela.

Durangaldeko bidesariak ordainpekoak izateari zer deritzozu? Diskriminatzailea dela deritzot. Gainera, gaur egun, luxuzko artikulua dela esango nuke.

Orduan, bidesaria kentzearen aldekoa zara?

Autobidetik joatera, ez dakit zehazki errepide gendreakan zelako zirkulazioa dabilen. Ohiko erabiltzaile moduan, nire ikuspuntutik, ez nago ziur guztiz doakoa izan beharko litzatekeen. Horrela, autoz beteko litzateke, eta doakotasun hori arazo bilakatu daiteke. Hileko kuota bat jartzearen aldekoa izango nintzateke, baina prezioak jaitsiz.



Jose Mari Arrillaga
Durango


Autobidea egutero erabiltzen duzu, ala aldizka bakarrik?

Ez, ez dut egutero erabiltzen. Hile batzuetan, hamar bat bider erabiliko dut, eta beste batzuetan gutxiago. Gehienetan, hitzordu jakin baterako erabiltzen dut, ordu zehatz baterako heldu behar dudalako, eta, horregatik, biderik arinena erabiltzea aukeratzen dut. Hori

bai, asko erabiltzen duena dirutza uzten ari da. Esate baterako, lanera joateko erabiltzen baduzu, hilean ia 100 euro utzi ditzakezu. Urtean, 1.000 euro izan daitezke.

Bidesaria kentzearen aldekoa zara?

Eskaera Durango-Bilbo zatiaren liberalizazioa izan beharko litzateke. Bizkaitar guztien artean berdintasuna egon beharko litzateke. Izan ere, une honetan, guztiz diskriminatzailea da. Bizkaia, Muskizen hasi, eta Ermuan amaitzen da. Hor-taz, azken 15 kilometroak dira ordaintzen ditugunak. Gainerako bizkaitarrek ez dute ordaintzen.



Ander Duñabeitia
Iurreta

Kamioilari zara ofizioz. Zelan ikusten duzu A-8ko bidesaria igotzeko erabakia?

Konparaketa egitea besterik ez dago: Espainiar Estatuan, aurten, bajatu egin dituzte autobideetako bidesariak, eta Euskal Herrian igo. Ez zait ondo iruditzen, eta, gainera, gauden egoera ekonomikoa ikusita, oraindik eta gutxiago.

Kamioilariok, talde moduan ere baduzue zer esana...

Normalena, kamoientzat prezioak merketzea izango litzateke. Kamioiak bide nazionaletatik autobideetara bidaltzeko ideiak irten ziren lehen, baina kontrakoa dabilta egiten. Beste leku batzuetan, deskontuak dituzte; AP-1ean, adibidez, Mirandan doan da, hiritik zirkulazioa kentzeko.

Eta zure lanean, igarriko duzu bidesariaren igoera, ezta?

Ni autonomia naiz, eta, enpresen antzera, autobideko bidesaria garrarioaren gastuetan sartu beharko dut.

URTARRILEKO SARIAK

Anbotoren lagunak

www.anboto.org
lagunak@anboto.org
Tel.: 946 816 558



SALTSAN KATERIN.
EGUEN SALTSAN
Kalitate handiko produktuen dastaketa, 2 pertsonentzat. 4 egile-pintxo, 2 ardorekin lagunduta.



COLOR PLUS.
INPRIMAGAILU
MULTIFUNTZIONALA
Epson eskaner eta inprimagailu multifuntzionala.



FORUM SPORT.
PULSOMETROA
Polar FT1 modeloia eta uhala. Iragazgaitza.



HITZ LIBURU-DENDA.
LIBURUA ETA CDa
Joseba Sarrionandiaren “Lapur banden etika ala politika” liburuia eta Esne Beltza taldearen “Esna” CDa.



EROSKI.
SPORTCAM
Kiroletarako kamera konpaktua. 95mm ultra compact size. Weather Proof.



ABENDUKO IRABAZLEAK

- > **HITZ LIBURU-DENDA.**
Maite Gandiaga Bizkarra
- > **PODOLOGIA KLINIKA.**
Karmen Uribe
- > **SALTSAN KATERIN.**
Ekain Olmos Gaztelurrutia
- > **SAN AGUSTIN.**
Josu Errazti Elorza



Lourdesko Ama ikastetxea: kalitatezko hezkuntza, euskalduna eta doakoa

Naturaren atarian dagoen Lourdesko Ama ikastetxeak hezkuntza ulertzeko modu eraldatzaile bati zabaldu dio atea aurren, erroak ahaztu gabe, etorkizunari eskuetatik ilusioz hartzeko. Aldaketa horretan, zeresan zuzena dauka Irati Alberdik, ikastetxeko irakasle eta aldaketa pedagogikoaren arduradunak: “Baina, pedagogiak pedagogia, Lourdesko Amak berezitasunik badu, oso ikastetxe familiarra izatea da. Hau da, balio izugarria ematen diogu gurasoei dugun hartu-emanari”.

Ikaslea erdigune

Ikastetxeak mantendu nahi duen gertutasuna, baina, ez da gurasoekikoa soilik. 0 urterekin Maria Bitarteko ikastetxean hasi, eta 16rekin Lourdesko Amatik irten arte, “ikasleak dira gure arrazoi eta helburu”. Adibide bat jartzearen, ikas prozesuan zailtasunak dituzten gazteen kasua nabarmendu du Irati Alberdik. “Gure ustez, nahitaezkoa da ikaslearen egoera pertsonalaren inguruko interesa agertzea, horrek nabarmen eragiten duelako ikaslearen

garapenean, eta, hortaz, esaterako, errefortzu saioak eskaintzen dizkiogu beharra duen ikasle orori”. Baina, alde akademikoak bere barruan bildu behar du alderdi ludikoa, eta asko dira egunerokotik kanpo garatzen dituzten ekintzak: besteak beste, Gabonetako zein udako jaialdiak, ikasbidaia eta Alemaniako eskola bateko ikasleekin egiten duten astebeteko trukea.

Langileen kooperatiba

Lourdesko Ama ikastetxea urte askoan izan da asuntzionistek gidatutako ikastetxe erlijiosoa, baina badira hiru urte langileen kooperatiba bihurtu zela, eta egungo langile guztiak laikoak dira. “Orain dela urte gutxira arte, Kristau Eskola elkartearen parte izan gara, baina, gaur egun, beste kooperatiba batzuekin batera, Ikasgiltza federazioaren barruan gaude, zerbitzu publikoko orientazio argiarekin, euskal hezkuntza sistema hobetzen laguntzeko asmoz”, adierazi du Irati Alberdik.

Gizartera egokituz

Hezkuntza etengabeko aldake-

tan murgilduta dagoen elementu soziala da. Urte gutxi batzuk atzera begiratzea baino ez dago horretaz jabetzeko. Gutxitzen doa hezkuntzan liburuek orain artean izan duten pisua, gizar-tea bera ere aldatzen ari delako, eta Maria Bitarteko zein Lourdesko Ama ikastetxeak ere aldaketa horien lekuko eta partaide dira.

Aipatzekoa da eskolak teknologia berrien alde egin duen apustua. Ikasle bakoitzak ta-

bleta informatiko bat edukitzeko erronka ezarri du ikastetxeak, eta ahalegin horren emaitza Lehen Hezkuntzako lehenengo mailan dauden ikasleak dabilta praktikan jartzen. “Proiektu berritzaile batean murgildu gara, eta bi zutabe finkatu ditugu: talde-lana eta umeek euren egin beharrekoa egiten jakitea, hau da, partaide aktiboak izatea”, azaldu du proiektu horretaz arduratzen den Irati Alberdik. “Gu gizarte

batean bizi gara, beraz, taldean bizitzen ikasi behar dugu. Gaur egun, dauden informazio iturri guztiekin, ez du zentzurik ikasi beharrekoa buruz ikasteak, eta, horregatik, garrantzi berezia eman nahi diegu teknologia berriei. Gainera, indar handia jartzen dugu ikas prozesua aktiboa izate horretan: eginez ikasi. Umeek manipulatutako egin behar dute, eskuak erabili... Hori dela eta, kontzeptu abstraktuak erabili beharrean, objektu manipulagarriak lantzen saiatzen gara, haurrek eskuarekin hartu, ukitu eta ikusi ahal izateko; hau da, errealago bihurtu nahi dugu ikas prozesua, gure ikasleak XXI. mendeko biztanle izan daitezen”.



Maria Bitarteko
Ikastetxea

Tel.: 946 231 626
www.mariabitarteko.com



Lourdesko Ama
Ikastetxea

Tel.: 946 820 056
www.lourdeskoama.es



Herritar ugari batu dira AHTaren egoeraren berri jasotzeko batzarrean

Orain arteko bidea azaldu, eta aurrera begirako lan ildoak jakinarazi zituzten

ATXONDO J.Derteano

Martitzenean, herri batzarra egin zuten udaletxean Atxondoko Abiadura Handiko Trena-

ren proiektua gaur egun zein egoeratan dagoen azaltzeko. Udalbatzar aretoa ia bete egin zen. Iazko abenduko desjabetze

akten sinaduraren nondik norakoak azaldu ostean —udalak ez zituen sinatu—, otsailean zehar desjabetza akten sinake-



Udalbatzar aretoa ia bete egin zen, martitzenean, AHTaren gaineko informazioa jasotzeko.

ta, seguruenik, Bilbon deituko dutela azaldu zuen Dabid Cobos alkateak: “Baina legeak ez du inon jasotzen Bilbon egin daitekeenik, ezta udaletxean bertan ere; legeak jasotzen du aktak desjabetzen diren lurretan bertan sinatu behar direla”.

Udala AHTak eragindako beste albo kalte bat aztertzen dabil, eta horren gainean zer egin daitekeen. Trazatuaren ondoko lurretan bide-zor eta afekzio gu- neak daude, bidearen alde bakoitzari 20 eta 50 metroan eragiten diena. Hauek ez dituzte desjabetzen eta ez daude txostenean, “baina lur horiei muga asko jartzen dizkiete, balorea galtzen dute eta hori ordaindu egin beharko litzateke”. Bide hori aztertzen ari dira, eta eragindako herritarrei ere bide hori aurrera eramateko argibideak eskaini zizkien. Edozelan ere, urtarrilaren 27an, 09:30etik 19:30era, udal teknikaria herritarren dudak argitzen ibiliko da udaletxean. Ordua aurretik hartu behar da.

San Antoneko Erremata egingo dute, domekan

GARAI M.O.

Baserriko produktu eta abereak enkantean ipiniko dituzte etzi, domekan, San Anton egunez egiten ohi den Errematan. Enkanteak, gainera, ikuspegi solidarioa edukiko du: batzen den diruaren erdia Caritasi emango diote, eta beste erdia elizako konponketak egiteko erabiliko dute.

Goizeko 11:30ean meza egingo dute Elizabarrin, eta ostean hasiko da enkantea, kanpoan. Herritarrek hainbat produktu eramago dituzte: arrautzak, txorizoak, barazkiak, untziak... Lazaro Milikuak gidatuko du enkantea, 15. aldiz jarraian.

Udal etxebizitzetarako sarbidea malgutu dute

ATXONDO J.D.

Atxondoko Udalak lau etxebizitza publiko ditu Arrazolan: gela bateko bizileku bi, eta, bi eta hiru gelako bana. Iazko irailean, bi gelako bat hutsik geratu zen. Udalak hautagaiarentzako izenemate deialdia ireki eta zerrenda osatu zuen, baina denek logela bateko bizilekurako eman zuten izena. Beraz, irailetik bizileku bat hutsik dago, eta hautagaiek ezin zuten bertara sartu. Horrelako egoerak ekiditeko, udal etxebizitzaren ordenantza moldatu dute, baldintzak

malgutuz. EH Bilduren aldeko botoekin onartu zuten aldaketa. EAJ abstenitu egin zen. Aurrerantzean, etxebizitza bat hutsik badago, eta zerrendan maila horretako hautagairik ez badago, beste maila batzuetan daudenek aukera izango dute etxe horretara joateko. Beti ere, goitik beherako lehentasuna jarraituko dute. Edozein kasutan, ordaindu beharreko errentaren zenbatekoa azkenean esleitutako etxebizitzaren arabera izango da, ez hasieran izena emandako mailakoarena.

Udalak Olaetxea izango du ordezkari Udalbiltzan

ATXONDO J.D.

Iazko azaroan egindako udalbatzarrean, Atxondoko Udalak Udalbiltzara sartzeko eskaera egitea onartu zuten. Joan zen astelehenean, urteko lehenengo udalbatzarrean, Udalbiltzak udalaren eskaera onartu duela jakinarazi zuen Dabid Cobos alkateak.

Ondorioz, Udalbiltzako batzar nagusietara joango den ordezkaria aukeratu zuten. Gobernu Taldeak Igor Olaetxea (EH Bildu) proposatu zuen. Beraz izan zen udalbatzarrean aur-

keztutako hautagai bakarra, eta bozketan bere hautagaitza onartu zen EH Bilduren aldeko botoekin eta EAJren abstentzioagaz. Beraz, aurrerantzean,



IGOR
OLAETXEA

Olaetxea izango da Udalaren eta Udalbiltzaren arteko bitartekaria.

Bideen inbentarioa egiteko 10.000 euro gorde dituzte

IZURTZA J.Derteano

Izurtzako Udalak herriko bideen inbentarioa egingo du. Iaz, kreditu aldaketa batzuk onartu zituzten udalbatzarrean hainbat gaietarako, eta aldaketa horietako kopuru bat, 10.000 euro, hain zuzen, bideen inbentarioa egiteko erabiliko dute. Herri eta auzoetako bideen jabetzak eta mugak zehaztea da, besteak beste, azterketa horren helburua. Mañariko Udalak ere bere bideen inbentarioa egingo du, eta herri biek elkarregaz gauzatuko dute azterketa.

LABek salatutakoak gezurtatu ditu Lasuenek

Segurtasun neurriak betezen dituztela segurtatu dute

ZORNOTZA J.Derteano

Lasuen enpresa San Migel eta Lehendakari Agirre kaleetan urbanizazio lanak egiten ari da. LABen ustez, hango langileek ez dute bete izan Bizkaiko Eraikintza arloko Hitzarmena, babes neurriak eta lanegunei dagokienez. Horregatik, salaketa jarri zuen Bizkaiko Lan Ikuskaritzan, iazko abenduaren 21ean. Langileak, esaterako, kasko barik aritu izan direla diote, eta zapatuetan lan egin izan dutela, hitzarmenean jaieguna denean. EH Bilduk iazko udalbatzar batean ere salatu zuen obretako

langileek babes neurrietan ga-beziak zituztela.

Lasuen enpresak, aldiz, dena legez eraman duela dio, eta LABen jarrierari “lotsagarria” deritzo. Lehenengo eta behin, salaketa jarri aurretik, LABek eurekin berba ez egitea salatu du Mikel Lasuenek, eta erabat gezurtatu ditu sindikatuak leporatu dizkienak.

Osalanek azterketa bat baino gehiago egin dizkietela azaldu du, eta ez dutela LABek salatutako arau-hausterik aurkitu. LAB Bizkaiko Eraikuntza arloko Hitzarmenean oinarritu da

salaketa egiteko. Lasuenek, ordea, obra horrek, edozein obren modura, segurtasun plan propio bat duela dio, “udalak kontratatutako aditu batek egin eta udalak balioesten duena”. Han jasotzen dira obretako lan bakoitzari dagozkion segurtasun neurriak: “Obretako lan bakoitzak bere babes neurri propioak ditu. Baldosak ebakitzeko ez dutela kaskorik jartzen? Jakina, ez dago beharrik ere”.

Lasuenek azaldu duenez, udalera birritan deitu du udal ordezkariarekin, obra zuzendariekin eta segurtasun koordinatzailearekin batzartu eta argibideak eskatzeko: “Oraindik deia bueltan jasotzeko zain nago”. EH Bilduko ordezkariak diotenez, aldiz, ez dute batzar eske egindako dei horien gaineko konstantziarik.

Bertso Trukea egingo dute Barañaingo bertsolariekin

Errekondon egingo dute bertsotan, bihar, 18:00etan

MAÑARIA M.O.

Durangaldeko eta Barañaingo bertso eskolek Bertso Truke topaketa egingo dute, bihar, zapatua, Mañarian. Errekondo tabernan batuko dira bertsolaria, 18:00etan, eta elkarrekin kantuan ibiliko dira lagunartean. Bertsolari gazteei eta plaza gutxitan dabiltzanei aukera ematea da egitasmoaren helburua, eta, bide batez, herrietan jai giroa sortzea ere bai.

Mañariko eta ingurueta bertsolariek Errekondon dute hitzordua, beraz. Tabernako bertso saioaren ostean, seguru

poteorako gogorik ez dela faltako.

Durangaldeko bertso eskolak ere egin zuten topaketa, abenduan, Zarautze-koekin batera.

Hontzan, umeekin

Bestalde, Gabonetako oporretan, Hontza Museoa umeentzako tailerrak egin dituzte egun bitan, umeak animalien mundura hurbiltzera animatzeko. Museokoek azaldu dute arrakasta eduki dutela; 24 ume parte hartu dute, eta “disfrutatut dutela ziurtatu dute”.

EDERTASUN GIDA



Ana Camarero.

Mikropigmentazioa

Makillaje iraunkorreko teknika da mikropigmentazioa, aurpegiko itxura indartzen duena, emaitza natural bategaz.



Zergatik da ona mikropigmentazioa egitea?

Edertasun naturala indartzen duelako. Gainera, eguneroko makillajearen denbora aurrezten da, imperfekzio txikiak zuzentzen ditu, minbiziaren ondorioetarako soluzioak ematen ditu, eta segurtasuna ematen du, beti zoazelako apain.

Zenbat irauten du?

Bi urtera, asko jota, errebisioa egitea gomendatzen dut, mikropigmentazioaren egoera ikusi, eta errepaso bat behar den ala ez aztertzeko. Bestela, ez du mantentze-lan berezirik eskatzen. Gainera, minari dagokionez, oso eroangarria da, krema anestesikoa erabiltzen dugu eta. Tratamendua- ren aurretik alergia azterketak ere egiten ditugu.

Zuen zentroa zertan bereizten da beste zentroekin alderatzen badugu?

Especialistak gara, eta kalitate handiagoko lanak garatzen ditugu. Ezpainak betetzen ditugu, bekain hipererrealistak sortzen ditugu, eta Eye Liner metodoagaz begirada indartzen dugu. Horrez gainera, tresneria eta orratz onenekin egiten dugu lan, eta baita pigmentuen gama zabal eta fidagarri bategaz ere.



ILE-APAINDEGIAK



ESTETIKA ZENTROAK

Ana Camarero DOHAINIK
Edertasunerako tratamenduak eta aholkularitza

Mikropigmentazioa
Visagismo proba (makillajearen bidez aurpegiera zuzentzeko teknika) dohainik.
Bekainak, begiak (eyeliner) eta ezpainak.

Goienkalea, 16-1. esk. • 48200 Durango
Tel.: 946 817 380 • Mug.: 639 375 474



Profesionalik onenak zure zerbitzura!

Astelehenean ipiniko dute TAO sistema martxan, Trañabarrenen

Astegunetan, gehienez ere, ordubetez aparkatuta

ABADIÑO Itsaso Esteban
Sistema martxan ipintzeko beharrezko prestaketak burututa —seinaleztapen horizontal zein bertikalak, eta bi parkimetroak ezarrita—, datorren astelehenean ipiniko dute Trafiko eta aparkamenduaren ordenamendua (TAO) martxan, Trañabarren kalean.

Udalak onarturiko araudiaren arabera, astelehenetik barikura, 09:00etatik 13:30era, eta 16:00etatik 20:00etara, eta zapatu goizez, ezin izango da autoa ordubete baino gehiagoz Trañabarren kalean aparkatuta utzi. Egurdietan, gauez, zapatu arratsaldeetan eta jaiegunetan, berriz, TAO sistema ez da indarrean egongo.

Urrian onartu zuten udal ordenantzak aurreikusten duenez, aipaturiko araudia betetzen ez dutenek, 20 euroko isuna jasoko dute (10ekoa isuna ondoko 24 orduetan ordainduz gero).

Aste honetan kaleraturiko bandoan azaldu du Abadiñoko Udalak urtarrilaren 18an ipiniko dutela martxan Trañabarren kaleko TAO-a. Jose Luis Navarro alkateak azaldu duenez, lehenengo egunetan “malguago jardun arren, sistema serio betearaztea da helburua”. Udal-tzainak arduratuko dira ordenantza berria betearazteaz.

Urriko ohiko osoko bilkuran, Gobernu taldeko Abadiñoko Independienteek eta EAJ alderdietako ordezkariak egin zuten



Udaltzainak arduratuko dira ordenamendu berria betearazteaz.

Trañabarrenen TAO sistema ezartzearen alde, eta abstenitu egin zen EH Bildu. Sistema horregaz, Traña-Matienan aparkalekuekin dagoen arazoari “irtenbide partziala” ematen zaiola kritikatu zuen EH Bilduk. Gobernuak, aldiz, kale horretan aparkatuta egoten diren auto asko erosketak egitera joaten den jendearenak izaten direla, eta neurri honegaz txandakatzea areagotuko dela esan zuen.



Prest dago seinaleztapena, eta ipini dituzte bi parkimetroak ere.

Sindikatuak lan istripua salatu eta prebentzio neurriak eskatu dituzte

Astelehenean elkarretaratzea egin zuten, udaletxe pareko plazan

OTXANDIO J.D.
Joan zen astean, langile bat hil zen baso mozketan zebilela. ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS eta EHNE sindikatuak elkarretaratzea egin zuten, aste-

lehenean, Otxandioko plazan, basogintzan, oro har, prebentzio neurri hobeak sustatu behar direla eskatzeko.

Ez dakite jazoera horretan zelako prebentzio-neurriekin

ziharduten, ezta basogintzako lanabes egokiak zizuten ere. Baina, oro har, basogintzako sektorean “prebentzioa ez da behar bezala kontuan hartzen, nahiz eta jarduera, berez, arriskutsua den; makina astunak erabiltzen dira ingurune malkarretan, non ebakiak, erorikoak, harrapaketak eta bestelako istripuak izateko arriskua handia den”, salatu du ELAk. Osalanetik hainbat sentsibilizazio kanpaina egiten dira urtean zehar, “baina, ondoren, ez da jarraipenik egiten enpresa horiek lan baldintza egokiak betetzen dituzten ala ez jakiteko”, ELAn Bizkaiko osasun arloko ardura-duna den Leire Herediak salatu duenez.



ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS eta EHNE sindikatuak batu ziren elkarretaratzeaz.

Urte hasierarako eskaintza bi liburutegitik

ZALDIBAR I.E.
Ikastaro bi antolatu dituzte, udal liburutegian, 2016. urte hasiera honetarako. Urtarrilaren 22tik 25era egingo duten argazkigintza ikastaroa izango da bata, eta hiru saiotan (urtarrilaren 27an, eta otsailaren 3an eta 10ean) burutuko duten *Ipuinak eta emozio hezkuntza* izenburukoa, bigarrena.

Judit Fernandez zaldibartarrak gidatuko du alde teorikoa eta praktikoa uztartuko dituen hiru saioko argazkigintza ikastaroa, eta Carlos Alonso psikologoak emango du hezkuntza afektiboan eta emozionalean ipuin eta irakurketek duten eraginaren inguruko tailerra. Bi ekimenetan parte hartzeko, beharrezkoa da liburutegian izena ematea.

22 farolatako bateriak lapurtu dituzte

MALLABIA J.G.
Mallabiko auzoetan kokatuta dauden 22 eguzki-farolatako bateriak lapurtu dituztela jakitera eman du Igor Agirre alkateak. Ertzaintzan lapurretaren berri eman, eta salaketa jarri dutela gaineratu du. Mallegoi, Areition, Longan, Trabakuan, Gerean eta Beranotxikin egin dituzte lapurretak. Farola bakoitzaren kostua 500 euro ingurukoa dela aurreratu dute udal ordezkariak. Lapurretak ez dira egun berean gertatu, apurka-apurka egin dituzte.

Efizientzia energetikoa
Lapurreta honen ostean, Mallabiko udalak eraginkortasun energetikoaren inguruko ikerketa egingo du zein neurri hartu erabakitzeko.

ATXONDOKO JUBILATUEN TABERNA KUDEATZEKO LEHIAKETA ZABALIK



IRAGARKIA

Ordaindu beharreko gutxieneko errenta: urtean 300€. Eskaintzak aurkezteko azkeneko eguna: urtarrilaren 27a. Argibide gehiago udal bulegoetan eta www.atxondo.net orrian.

Atxondo, 2016ko urtarrilaren 15a

Urtarrilaren 28an, eguna, 19:00etan.

Ametsen Liburuaren AURKEZPENA

hitz artekalea, 14 durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#aurkezpena

“Egoera ekonomikoa ona da, baina inbertsioak tentuz egin behar dira”

Elorriko Udalean 2016ko aurrekontuak onartu dituzte, EAJren babesik barik



Abenduaren 30ean eztabaidatu zituzten aurrekontuak, osoko bilkuran.

ELORRIO A.Ugalde
EH Bilduren eta Herriaren Eskubidearen botoekin onartu dute Elorriko udal aurrekontua. 7.443.000 eurokoa izango da, 2015ekoa baino %4 baxuagoa, eta jaitsiera hori Udalkutxatik diru gutxiago jaso delako izan dela azaldu dute. Jon Ander Gracia Ogasuneko zinegotziak esan du udalaren egoera ekonomikoa ona dela: “Egoera ona da, baina tentuz egin behar dira inbertsioak; ezin dugu urtero diru kopuru handia erabili gauza berrietarako”; horretarako, 500.000 euroko malgutasuna egongo da.

EAJren babesik barik, eta Joseba Mujika zinegotziak puntu

ugari kritikatu eta gero, onartu zituzten aurrekontuak. Besteak beste, EAJk kritikatu egin ditu presoen familientzat 48.000 euroko diru atala egotea, AHTaren kaltetuentzako aholkulari teknikoa kontratatzea, ortu sozialen egitasmoa martxan jartzea eta Pulla-Azkarreta industrialdearen proiektua berriro eztabaidara erateko asmoa. Azken egitasmo hori enplegua sortzeko “ezinbestekoa” dela esan zuen Mujikak. Gainera, Herriaren Eskubideari leporatu zion aurrekontuei babesa Pulla-Azkarretako gaia mahaigaineratzearen truke eman izana.

EH Bilduko gobernu taldeak azaldu zuen aurrekon-

tuetan gizarte arloari eman gura izan diotela garrantzia, eta herritarrek eta alderdiek egindako ekarpenak eskertu zituzten. Pulla-Azkarretari buruz, ezinegona sortzen duten gaiak mahaigaineratzeko arazorik ez dutela azaldu zuen Idoia Buruaga alkateak, eta AHTaren inguruan azaldu zuen kaltetuek “baztertuta eta bakarrik” sentitu direla esan dietela.

Inbertsioetan, herriko azpiegiturak hobetzeko hainbat egitasmo sartu dituzte. Esaterako, Eleizalde futbol zelaiko belarra aldatzeko 181.000 euro erabiliko dituzte, eta hezkuntza eraikinetarako 63.171.

Autokarabana gunea, eta beste 99 proposamen

ELORRIO M.O.

Herritarren iritzia kontuan hartuta, udalak 100 neurri batu ditu legealdi honetarako Gobernu Planean, eta autokarabana gunea ezartzea da horietako bat. Uda aurretik, 100 neurrietatik 18 eramango dituzte aurrera. “Elorriar denentzako Gobernu Plana da, etorkizuneko Elorrioren oinarria”.

San Jose kalean egokituko dute, batez ere, turistei begira sortutako autokarabana gunea. 11 leku edukiko ditu, bakoitza 40 metro karratukoa.

Hauek dira beste 17 neurriak: udaletxe atzeko lursaila zabaltzea; Berriotxoa kaleko sarbidea kontrolatzea; AHTaren inguruko aholku eta jarraipen batzordea hastea; liburutegian Wi-Fia ipintzea; Kirol Etxean erabilera anitzeko gela atontzea; emakume taldeen diru-laguntzak koordinatzea; Emakume Eskola indartzea; hezkidetzak mahaia sendotzea; futbol zelaiko soropila aldatzea; udako igerilekuen mantenua arautzea; eskalada-murrua erabiltzeko hitzarmena sinatzea; kirol mahaia osatzea; turismorako webgunea sortzea; elurteen protokoloa egitea; auzobideen garbiketa zehaztea; atzeritarren harrera protokoloa sortzea eta zerga eta laguntzetan progresibitatea ezartzea.

SEI HANKAKO MAHAIA

JULIAN RIOS
SQ-2D



Herritarren ekimenak

Azken garaiotan, herritarren ekimen ugari ikusi ditugu, oso esparru desberdinetan, pertsonen benetako arazoak agerian jarri eta arazo horiei modu demokratikoago eta parte-hartzaileago batean aurre eginda irtenbideak planteatzen dituztenak. Gero eta herritar gehiago dago guztioi eragiten diguten erabakietan eta bizitzako publikoan parte hartzeko gogoz. Heldutasun demokratikoa eta herritarren boterea seinale da hori.

Hala ere, instituzio publikoak, udalak zein horiek kudeatzen dituztenak, hots, politikariak, ez dira, itxura batean, heldutasun horretara iritsi, eta ateak itxita dituzte oraindik. Beraz, herritarrei ezinezko egiten zaie euren proposamen eta kezak aurkeztea, eztabaida publikoak mahaigaineratzea eta euren ekarpenekin erabaki bateratuak hartzea.

Durangeldean, herritarren hainbat ekimenen lekuko izan gara, instituzioek entzungor egin dietenak: herri kandidatura baten sorrera, haur parkeen estaldura, A-8 plataforma... eta politika zaharren erantzuna betikoa da: entzungor egitea.

Herritarrok parte hartu nahi dugu, ahotsa izan nahi dugu. Herritarren ekimenak guk geuk aurkeztu nahi ditugu instituzioetan. Hori posible ez den artean, Herriaren Eskubidea SQ-2D taldekook gure esku dauden tresna eta bitartekari guztiak jarriko ditugu herritarren zerbitzura, euren ahotsa entzuna izan dadin instituzioetan. www.sq2d.info (zinegotzi birtuala)
** Erredakzioan itzulia*

DURANGALDEA ASTEON

Gizarte langilea Bidebarrietan dago

IURRETA > Urtarrilaren 11z geroztik, Iurretako Gizarte langilea Bidebarrietako bulegoan dago. Beraz, Gizarte Zerbitzua bertan emango du udalak. Lekualdaketa horrekin, Gizarte Zerbitzuak herritarrengandik hurbilago egotea dute helburu. Orain arte moduan, astelehen eta eguenetan eskainiko dute zerbitzua.

Hika berba egiten ikasteko aukera

OTXANDIO > Hika berba egiten ikasteko aukera eskainiko dute, Otxandion, eta interesdunek urtarilaren 22ra arte eman ahal dute izena. Horretarako, euskara@otxandio.net helbide elektronikora mezu bat bidaltzea eskatu dute. Otxandioko Hika berreskuratzea da sustatzailen helburua.

20. Ipad elektronikoa zozkatu dute jadanik

DURANGO > *Salerosketak be euskaraz* egitasmoak 20. Ipad elektronikoa zozkatu dute jadanik. Guisasola Altzariak dendan eman dute saritutako txartela, 302.497 zenbakiduna hain zuzen ere. Horren jabea agertzen ez bada, 338.313 zenbakia daukanak jasoko du Ipada, Andra Mariko Errekamendi dendan eman dutena.

IRITZIA

Gutuna

Kaixo, lagunak. Nire egoera zein den helarazteko idazten dut gutun hau. Bi hitzetan laburbilduz: kezkatuta nago, baina animatuta. Kezkatuta nago, mediku guztiek dioten bezala, minbizia erregeneratzeko boleto gehiegi dauzkadalako eta espetxean bizi dugun egunerokotasuna, tentsioa, urduritasuna, elikadura kaskarra eta abar nire gaitzerako okerrera delako.

Ebakuntza egunetik hona, ez didate inongo probarik egin. Administrazioak eta epaileek, espetxeetan behar bezalako zaintza eta jarraipena daukagula argudiatuz, atzera botatzen dituzte gaixo gauden presoen eskaerak.

Zoritzarrez, gezur zikin horien ondorioak nire azalean bizitzen ari naiz. Jada, 7 hilabete pasatu dira ebakuntza egin zidatenetik, eta ez didate TAC ziztrin bat ere egin, niretzak honek suposatzen duen ezinonogonarekin: minbizia, zelan dago? Erregeneratu zait? Metastasia?...

galdera asko. Bestalde, animatuta nago, gurekiko daukazuen mobilizazio, borroka eta konpromisoari esker! Oso animatuta eta gogotsu! Badakit herria mobilizatuta dagoela eta mobilizazio guztiak jendetsuak direla. Esan beharra daukat nire herriaz oso harro sentitzen naizela, ohorea da niretzat durangarra eta euskal herritarra izatea!

Bukatzeke, azken garai honetan gure artean sortu den iskanbilari buruz, komentario txiki bat: amnistiaren leloa beti denon aldarrikapena izan da, ezker abertzale osoarena, eta ez multzo batena, gaur egun batzuk nahi duten bezala. Indarrak sakabanatuz ez goaz inora, egin dezakegun akatsik handiena izango litzateke. Gure helburu guztiak, dudarik gabe, indarrak bilduz lortuko ditugu!

Bestetik gabe, lagunak, jaso ezazue besarkada bana. Eutsi gogor eta urte berri on!

Gorka Fraile (Badajozeko espetxea)

astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO
Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarateak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitako eta emandako iritzien erantzukizunik.

> Berbaz

Javi Arrieta eta Miren Garrastazu | Dendak Bai merkatari elkarteak

“Eguraldia neguko salmentak inoiz baino gehiago baldintzatu ditu”

Beharpenen lehenengo egunetan salmentak oso ondo joan direla azaldu dute Dendak Bai elkarteko kideek



> BERBAZ Jone Guenetxea
Beharpenen sasoian bete-betean sartuta, Durangaldeko Dendak Bai elkarteak lehenengo egun hauetan ondo saltzen ari direla azaldu du. Eguraldiaren eraginez, denboraldi “arraroa” izan dela aitortu dute Javi Arrieta Sylke dendako jabeak eta Miren Garrastazu Dendak Bai elkarteko teknikariak.

Zelan joan da beharpenen lehenengo astea?

Javi Arrieta: Lehenengo egunetan, bezeroen harrera ona izan da, urtero legez. Lehenengo hiru edo lau egunak potenteak izaten dira. Itxaroten duguna da, aurten, beharpenak luzeagoak izatea. Izan ere, ia ez du negurik egin, beraz, arropa lodia, txaketak... asko gelditzen zaizkigu. Beraz, negu-neguko produktuak beharpen handiekin datoz.

Beharpenen aurretik, neguko denboraldia zelan joan da?

J.A.: Eguraldiak eragin handia izaten du. Arropan eta oineta-koetan, batez ere. Negu arraroa

izan da. Irailean ematen zuen hotza bazetorrela, baina gero, azaroan eta abenduan eguraldi ona izan dugu. Horrek ez digu bat ere lagundu.

Beharpenen aurretik promozioak izan dituzue. Aurten, lehenengo, ‘Black Friday’-rekin bat egin duzue. Sektorean estrategia berriak abian jarri dituzue.

M.G.: Bai, beharpenen aurretik promozioak egiten dira, prezioa dela-eta bezeroa erakartzea errazagoa delako.

J.A.: *Black Friday*k harritu egin nau aurten. Elkartetik horren aldeko apustua egin dugu aurten. Ekimen hauek mediatikoki bultzada handia izaten dute, eta jendeak oso ondo erantzuten du. Erosleak eskertu egiten du.

Gau irekia ere antolatu duzue, egun batez dendak beranduago itxiz, 20:00etan barik, 23:00etan.

M.G.: Gau irekiak ez du hain ondo funtzionatzen. Jendea ez dago hain ohituta.

J.A.: Guk ekimen hau ezagu-

tzeraz emateko ahalegin handia egiten dugu, animazioa jartzen dugu, baina gehiago kostatzen zaigu heltzea. Ekintza hauek, emaitza onak emateko, konstanteak izan behar dira. Urteetan egun horretan jendearen gustukoa den giroa sortzen baduzu, apurka-apurka fruituak ematen ditu.

Aukeren Azoka ere urtero antolatzen duzue. Egun horietan Landako gunea beteta egoten da. Baina saldu, saltzen duzue?

M.G.: Normalean, lehenengo eguneko etekinagaz dendari bakoitzak postua jartzea suposatzen dion gastua estaltzen du.

J.A.: Postua lehenengo jarri gura duten dendariei esaten diekan bezala, lehenengo parte hartzen duena harrituta gelditzen da beti. Alde batetik, lehenengo parte hartzeraz, inoizko *stock*ik handiena du. Bestetik, nobedadea da denentzat. Izan ere, Aukera Azokaren oso balorazio positiboa egiten dugu. Geroz eta publiko handiagoa dugu. Formula ohikoa den arren,

dendan izan duen arropa prezio onean ateratzen du dendariak, eta erosleak sektore askotako dendak aurkitzen ditu espazio berean. Aurten, martxoaren 18, 19 eta 20an antolatuko dugu.

Krisiak gogor kolpatu du merkataritza. Egoera hori gainditzeko ari gara?

J.A.: Mugimendu handia dago arropen arloko dendetan, batez ere. Okindegi eta fruta-denda asko zabaldu dira. Dena dela, nik dudaren sentsazioa da Durangoko merkataritza gorantza doala.

Durangaldeko bezeroez gain, bezeroak beste herri batzuetatik ere etortzen dira?

M.G.: Markina, Ondarroa, Lekeitio, Zornotza... geroago eta herri gehiagotatik etortzen dira erosleak.

Durango antolatzen diren ekintzek zein eragin izaten dute merkataritzan?

J.A.: Edozein ekimenek merkataritza eragina izan dezake. Gimnasia erritmikoko txapelketa

batek zein Durangoko Azokak. Dena dator ondo Durango eta bertako dendak ezagutzera emateko.

Azokan salmentek gora egingo dute, ezta?

J.A.: Nire kasuan, egun horietan ez dut gehiago saltzen. Agian gutxiago. Izan ere, nire bezeroak durangarrak eta ingurukoak dira, eta egun horietan kanpora joateko aprobetxatzen dute. Egun horietan, ostalariek nabaritzen dute gorakada. Hala ere, azpimarratu nahi nuke, oso egun onak direla hemengo merkataritza ezagutzera emateko. Handik astebetera jendea etortzen da, Azokan denda ikusi zuelako eta interesatu egin zitzaioelako. Beraz, erakusleho oso ona izaten da. Aukera baliatu nahiko nuke dendariei esateko egun horietan denda ikusgarri egiteko.

“Gure merkataritzari ikusgarritasuna eman behar diogu; Durango denetarik dugu”

Zeintzuk dira Durangoko merkataritzaren erronkak?

J.A.: Geroago eta gehiago indarra jarri behar dugu, on-lineko salmenta handitzen ari delako. Internet bidezko salmenta gure konpetentzia zuzena da, eta horri aurre egitea da gure erronketako bat.

M.G.: Gure merkataritzari ikusgarritasuna eman behar diogu. Jendeari azaldu behar diogu Durango denetarik dugula, ez dela zertan Bilbora joan.

J.A.: Mugikortasuna eta apartekatuak egokitzea beste erronketako bat da, jendea dendetara erraz heltzeko. Saltoki Irekia izan gura dugu. Jendea egun-pasa etor dadila, eta erosketak egin eta zer edo zer hartu dezala. Merkataritza-gune itxi bat baino interesgarriagoa izan daiteke.


Durangaldeko merkataritzak zein premia du?

J.A.: Instituzioen babes behar dugu. Ildo horretatik, bi merkataritza elkarteak uztartu zirenetik, gauzak ondo egiten ari garela esango nuke. Instituzioen aldetik sentsibiltate hori behar dugun moduan, kontsumitzailearen aldetik ere beste hainbeste behar dugu. Gertuko merkataritza bultzatzerakoan, kalitatezko merkataritza eta herri bizia bultzatzen ari gara.

JAIAK!

San Antonio

2016ko URTARRILA | BERRIZ



**Berrizko Udalak jai
zoriontsuak opa deutsuez**

www.berriz.org



berrizko
UDALA

BERRIZKO JAIEN EGITARAUA

URTARRILAK 10 DOMEKA

10:00 Mendi bizikleta martxa
Izen-ematea eta irteera Olakueta plazan.
Izena-ematea doan.

URTARRILAK 15 BARIKUA

18:30 Olakuetan kalejira.
Ardoa barrura txaranga.

19:30 "Sagardotegi ibiltaria"
Olakueta plazan.

Ondoren, odoloste jana
Olakueta plazan.

20:30 Olakuetarrek ibilalditxo egin
ostean, Donien Atxa altxatuko dabe
Olakueta plazan.

21:00 San Antonio X. pilota
txapelketa - finalak.
Olakueta frontoian.

22:00 Kontzertua: Keshala + Gehi Zazpi, gaztetxean.

URTARRILAK 16 ZAPATUA

12:30 Sun magoa
Olakueta frontoian.

15:00 BertsoPainting Bazkaria: Onintza Enbeita, Miren Amuriza eta
Oihana Bartra. Gai-jaritzaila: Maite Berriozabal, gaztetxean.

17:30 Nesken frontenis eta pala.
Olakueta frontoian.

18:00/22:00 Erromeria Luhartz taldearekin
Olakueta plazan.

23:00 Kontzertua: Zain + Eratu + DJ Ana "Zuenkontu", gaztetxean.

URTARRILAK 17 DOMEKA SAN ANTONIO EGUNA

11:00 Eskualdeko XXXV. barazki
eta fruitu erakusketa probalekuan.

11:00 Artisau txokoa frontoian.

12:00 Baserriko oilasko dastaketa
Olakueta plazan.

12:30 Antonio Deunaren
baselizan meza.

13:00 Iremiñe eta San Lorentzo dantza taldeen ekitaldia Olakueta
plazan.

19:30 Berrizko Kultur Etxea. Trio Medianoche Kontzertua.
Sarrera 3 euro.

URTARRILAK 18 ASTELEHENA

16:30/18:30 Barrakak merkeago (0,50 eurotan).

19:00 Askaria eta nekazaritza olinpiada
frontoian. Sarrera, euro 1.
Ikuskizuna, txorizo - ogitartekoa eta
edaria (amaitu arte).

URTARRILAK 25 ASTELEHENA

20:30 Donien Atxa kenduko da.


21:00 Olakuetarren afaria.

URTARRILAREN 21etik 25era

LX. Antonio Deuna sari nagusia.
Begiratu proben egitaraua.



JON HARATEGIA
URDAITEGIA
Iturrizar, 9 - BERRIZ - 676 019 105 - 946 225 208



**KONFIANTZAZKO ZURE
ASEGURU-ETXEA**
Geltoki kalea, 9 - Berriz 48240
944 984 190 - forunaa@mapfre.com



HIERROS RIEZU S.A.
burdinak
eta metalak
Eitua industrialdea, 4 - 48240 BERRIZ - Tel.: 946 824 131
Faxa: 946 824 390 - hierrosriezu@telefonica.net



Ibai Ondo
Ferreteria · Burdindegia
Iturriza, 10
946 824 489
f 946 824 489
ferreteriaibaiondo@gmail.com
BERRIZ



Liburudenda
Amaluv
aldizkariak
papera
opariak
Iturriza, 29 Berriz Tel.: 946 826 248

Luhartz, frontoiko jarduna eta olinpiadak, Olakuetakoz bazterrak berotzeko

Gaur, 18:30ean, hasiko da jai-giroa Olakuetako plazan: kalejiraren ostean, 20:30ean altxako dute Donien Atxa



Berrizko jai batzordeko kideak eta udal arduradunak, astelehenean egindako jaien aurkezpenean.

> JAI-GIROA Amaia Ugalde
Negu giroa ohikoa baino beranduago heldu den honetan, etxetik irten eta jai-giroan ibiltzeko gonbita egin dute Berrizko jai batzordeak eta Hiltegiex gazteak. Pasa den domekan, BTT martxagaz hasi zuten San Antonio jaiei lotutako egitaraua, eta

gaurtik urtarrilaren 25era arte, Olakueta inguruan ibiltzeko hainbat motibo egongo dira.

Donien Atxa Olakuetako jaien ikur nagusia da, eta gaur jarriko dute berau. Aurretik, baina, erritu txiki bat igaro beharko du: tabernaz taberna ibilalditxo egingo dute Donien

Atxagaz, 20:30 aldera. Giroa 18:30 inguruan hasiko da, txaranga, sagardotegi ibiltaria eta odoloste jana izango dituztelako.

Zapatuan, eguerdi partean hasiko dira ekitaldiak, Olakuetan. 12:30ean, frontoian, Sun Magoak emanaldia egingo du, eta iluntzean erromeria izango dute

plazan, Luhartzegaz. 18:00etatik 22:00etara izango da erromeria.

Frontoian, pilota zarata

Barikuan eta zapatuan, berriztarrek pilota erakustaldiak egingo dituzte frontoian. Barikuan, San Antonio pilota txapelketako finalak jokatuko dituzte, 21:00etan hasita. Txapelketa horretan 59 bikotek parte hartu dute, hiru kategoriatan.

Zapatuan, nesken pala eta frontenis partiduak izango dituzte, 17:30etik aurrera. Haste-ko, eskola kirolean paleta goman dabilzan bi bikotek partidua jokatuko dute, eta gero, frontenis topaketa berezia egingo dute Berrizko neskek: zozketaz egokitutako bikoteagaz kiniela eran jokatuko dute. Bi tantotara egingo dituzte partiduak, eta hamar partidu arinen irabazten dituen bikoteak irabaziko du txapelketa. Bi topaketa izango dira; gaztekoena, eta 18 urtetik gorakoena.

Baserritarrek eta artisauak

Domekan, San Antonio egunean, Eskualdeko XXXV. Barazki eta Fruitu Erakusketa egingo

dute probalekuan, eta bitartean, frontoian, artisauen txokoa egongo da. 12:30ean meza izango dute. Ostean, Iremiñek eta San Lorentzok dantza erakustaldia egingo dute. Asteburua amaitzeko, Trio Medianoche hirukoteak rantxera doinuak ekarriko ditu kultur etxera, 19:30etik aurrera.

Zapatuan, neskek frontenis topaketa egingo dute

Nekazaritza olinpiadak

Urtarrilaren 18an, ikusmin handia sortzen duten nekazaritza olinpiadak jokatuko dituzte, frontoian. 19:00etan hasiko dituzte olinpiadak. Bost pertsonaz osatutako talde mistoek parte hartu behar dute jokoetan. Sarrerak euro bat balioko du, eta horrekin, edaria eta txorizo ogitartekoa jasoko dute ikusleek.

Probak eta jaien amaiera

Urtarrilaren 21etik 25era idi probak jokatuko dituzte Berrizko probalekuan, eta urtarrilaren 25ean amaituko dituzte jaiak: Donien Atxa kendu, eta olakuetarrak afaritarako batuko dira, Pedro Juan jate-txean.

Hiltegiexen, 'Bertsopainting' bazkaria eta kontzertuak

Gehi Zazpi eta Keshala taldeen kontzertua izango da, gaur, Hiltegiex Gaztetxean

> MUSIKA A.U.

Ohi bezala, Hiltegiex gaztetxean jaiak musikaz eta umorez pasatzeko egitaraua prestatu dute "beheko jaietarako". Gaur, 22:00etan Gehi Zazpi Durangoko biolontxelo taldearen eta Keshalaren bisita izango dute gaztetxean. Sarrera doan izango da.

Bihar, eguerdi partetik ibi-

**Onintza Enbeita,
Miren Amuriza
eta Oihana Bartra
gonbidatu dituzte**

liko dira jai-giroan Hiltegiexen. 15:00etan *Bertsopainting* bazkaria edukiko dute. Onintza Enbeita, Miren Amuriza eta Oihana Bartra bertsolariak gonbidatu dituzte, eta Maite Berriozabal ibiliko da gaiak jartzen. 23:00etan kontzertuak hasiko dira: Zain, Eratu eta DJ Ana igoko dira Hiltegioko oholtzara.



Urtero bertsopainting bazkari berezia izaten dute, Hiltegiexen. Oihana Alberdi

 Iturriza kalea, 9
Tel.: 946 824 009
48240 BERRIZ

fonda
TABERNA

 **AZKONDO**
ELEKTROTRESNAK
Iturriza, 8 - Berriz - 946 824 293

ORLEGI **TABERNA**
Iturriza, 5 BERRIZ
Tel.: 946 824 828

 **express**
Zengotitabengoa
BERRIZ
946 824 215



Donien Atxa tabernarik taberna poteoan ibiliko da, gaur, berriztarrekin

Donien Atxa lepoan hartu, eta tabernarik taberna eramaten dute poteoan, plazan jaso eta jaiei hasiera eman aurretik

> JAIK J. Derteano

Herri askotan, Donien Atxa jasota hasten dituzte jaiak. Plazara batu aurretiko poteoa ere ohitura zabaldua da. Berrizko San Antonio jaietan ere erritual bera errepikatzen dute urtero, baina berezitasun propio batekin: Donien Atxa tabernarik taberna eramaten dute poteo orduan, plazan altxatu aurretik.

Orain hamar bat urte sortu zen ohitura hori. Urte askoan, Olakueta auzokoek jasotzen zuten Donien Atxa. Gero, jende faltagatik, udalak hartu zuen zeregin horren ardura, eta garabi baten laguntzagaz jartzen zuten. Baina, lagun talde batek ohitura hori berriro herritarrengana zabaltzea erabaki zuen: "Orduan irten zen ideia. Zergatik ez dugu Donien Atxa geurekin eramaten aurreko poteora? Broma moduan egin zen komentarioa... errealtate bihurtu zen", gogoratu du ekimenean parte hartzen duen Juan Cruz Elvirak.

Donien Atxa, gaur, 20:30 inguruan jasoko dute, eta poteoa

19:00 inguruan hasiko da. Trikitilariak lagunduta, tabernarik taberna ibiliko dira 18 bat metro luzeko Donien Atxa lepoan hartuta, eta taberna barruetara

Donein Atxa kendu ostean, afaritara batzen dira. Aurtan, Julianxunean

Pedro Juanen ez da atetik sartzen, eta alboko leiho batetik sartzen dute

sartuko dute. Taberna bakoitzak bere berezitasunak ditu: "Baina urteak joan ahala, bagabiltza ta-

berna bakoitzeko berezitasunak ikasten. Esaterako, Pedro Juan jatetxean ezin dugu atetik sartu, luzeegia delako. Beraz, mutur bat alboko leihotik sartu, eta barran pausatzen dugu bertan gauden bitartean". Gorago dagoen Fonda tabernak ere badu bere zera: "Kanpoan geratzen den aldea bide erdiraino heltzen da, eta trenbidea ere gertu dago. Beraz, aguazila edo gutako nor edo nor egoten da han, zaintzen, auto gidariei abisu emateko, behar izanez gero".

Tabernarik taberna ibili ostean, plazan batzen dira Donien Atxa altxatzeko. Aurtan ere ez da apusturik faltako: lehenengoan jarriko dute, erori egingo da, ez da eroriko... "Ohitura da han-hemen porratxoak sortzea. Jartzerakoan, oraindik sekula ez zaigu erori". Kentzerakoan, ordea, erori egin zitzaion behin, eta udalak urte horretan jarritako kale argi berrietako bat apurtu zen.

Donien Atxa jaso ostean, taberna batean batzen dira moka-

tean, afaritara batzen dira jaiei errematea emateko. Honetan ere, txandaka ibiltzen dira, eta, aurtan, Julianxun jatetxean batuko dira.

Gazteei deia

Donien Atxa jartzeko tradizioari luzaroan eutsi gura diote, baina badakite, epe luzera begira, erreleboa beharrezkoa dela. Horregatik, "deia luzatu gure diegu Olakueta gazteei etorri daitezten, Donien Atxa gugaz jartzen".



Donien Atxaren alde bat taberna barruan eta bestea kanpoan, hori da ohikoena.

A&L
AZPIRI LEJARDI
Correduría de Seguros S.L.
Geltoki kalea
48240 Berriz
946 824 937
info@azpirilejardi.com
www.azpirilejardi.com

ETXEBARRIA
ESTANCOA
Iturritza, 14
Tel./Faxa: 946 827 958
BERRIZ

Juliantxu
Jatetxea
94 682 40 77 - 48240 Berriz (Bizkaia)

SAN ANTONIO, 1.
48.240 BERRIZ BIZKAIA
TEL: 94.682.62.46

pedrojuan
JATETXEA

Etsipen musika taldea | Martin Sarasketa, Ibon Azpiri, Iker Olabegoia eta June Ruiz

“Plateruenean jo ahal izatea nahikoa sari zen guretzat”

Lokaletik At musika lehiaketaren lehen edizioa irabazi du Berrizko laukoteak

> MUSIKA Itsaso Esteban
Zelako sentsazioak eduki zenituzten Lokaletik At lehiaketaren finalean?

Ibon Azpiri: Oso onak. Jotzen hasi aurretik, nahiko urduri ibili ginen, baina gozatu egin genuen. Soinuari dagokionez, kondizio oso aproposak eskaintzen ditu Plateruena.

Iker Olabegoia: Nahi baino kontzertu gutxiago eskaini ahal izan ditugu lehenago, denak Berrizen, baina esperientzia hori oso baliagarria egin zitzaigun finalari begira. Hasierako emanaldietatik ikasitakotik egindako hobekuntzekin jo genituen kantak, lehiaketan.

Martin Sarasketa: Plateruenean jo ahal izatea nahikoa sari iruditzen zitzaigun, egia esan.

Giro polita egon zen finalean?

I.A.: Bai, jo genuen taldeetako kide gehienok elkar ezagutzen dugu, eta oso gustura ibili ginen.

June Ruiz: Publikoan ere giro polita zegoen, gainera. Guk geure familiartekoak eta lagunak espero genituen, baina jende gehiago ere etorri zen.

Oholtzan erakutsi zenuten etorria azpimarratu du epaimahaiak. Zer deritzozue?

Ibon Azpiri: Zur eta lur utzi gaituzu, egia esan. Gutxi jo dugu

zuzenean, eta zoriak ere izango zuen eraginik! (barrez).

Ingurukoek zer diotsue?

J.R.: Gazteak izanda musika talde batean elkarregaz aritzea, eta gainera, euskaraz sortzea polita dela esan izan digute.

Zuen adineko jende gutxi dabil musika taldeetan?

I.A.: Badagoz, baina gutxi... Eta pena da guretzat.

I.O.: Gehiago bagina, sare bat osatuko genuke, eta aukera gehiago izango genuke kontzertuetarako, esaterako.

M.S.: Baina gogoia, denbora eta materiala ezezik, entseguak egi-

teko lokal aproposa ere behar da talde bat sortzeko, eta Berrizen pribilegiatuak gara horretan.

I.O.: Berrizko udalaren musika lokaletan gauden 14 taldeok harreman oso polita daukagu.

I.A.: Musika estilo desberdinak jotzen ditugun belaunaldi desberdinetako jendea gara.

Noiztik diharduzue elkarregaz musika egiten?

I.O.: Ibon eta ni beste taldekide bigaz ibili ginen hasieran, orain lau urte inguru. Neuk eginda neuzkan kantak jotzen hasi ginen. Bi lagun haiek taldea utzi zuten, eta June gitarragaz eta Martin bateriagaz batu zitzaizkigun, orain urtebete inguru.

Zenbat kantako errepertorioa daukazue?

I.A.: Zazpi kanta jotzen ditugu geuk sortutakoak, eta baita hainbat bertsio ere. Black Flag, The Cure, Ramones, Dinero...

Ez zarete zuen belaunaldiko doinueta mugatzen...

I.O.: Ez, izan ere, beti pentsatu dugu aurreko hamarkadetako gaur egun egiten dena baino musika landuagoa dela.

Lehiaketak irabazten ibiltzeko, izen pesimista samarra ipini zenioten taldeari...

I.O.: Kosta zitzaigun izenaren kontua: ez zitzaigun taldearentzako izen aproposik bururatzeko. Ideia baten bila nengibela, “izenaren kontuagaz etsi egin beharko dugu” pentsatu nuen, eta hortik etorri sortu zen Etsipen izena. Baina ez gaude etsita, inondik inora: kontrara, jotzeko ilusio handiagaz gaude.

Zer erronka daukazue?

I.O.: Gure kantak grabatu eta gutxinaka Internetera igotzen joatea gura dugu.

I.A.: Eta lokalean kanta berri gehiago sortzen joatea.

Ibaizabalgo Haur Hezkuntzako ikasleen umeentzako antzezlanak

Beraiek sorturiko bost antzezlan labur eskainiko dituzte ikasleek, Plateruenean



Antzezlan bakoitzarentzat kartel bat ere sortu dute ikasleek.

> ANTZERKIA I. E.

Urtarrilaren 18an, 17:00etan, eskainiko dute Durangoko Ibaizabal ikastolako Haur Hezkuntzako 23 ikasleek umeentzako antzerki emanaldia. Bost obra labur eskainiko dituzte: *Zirkus Mundi*, *Euria egin ondoren*, *Aker galdura*, *Kurkubitak* eta *Eskutik batera* izenburukoak.

Aniztasuna da Ibaizabalgo ikasleek sorturiko bost antzezlanen ezaugarri nagusia, eta askotarikoak protagonistak: zirkuko pertsonaiak ageri dira istorioe-

tako batean, eta animaliak eta estralurtarrak beste batzuetan.

Literaturari eta antzerkiari loturiko gaiak lantzen dituzte Ibaizabal ikastolako Haur Hezkuntzako Goi mailako ikasketetan, eta saio horietan sortu dituzte gazteek, astelehenean, Plateruenean, jendaurrean eskainiko dituzten istorio hauek. Beraiek pentsatu dituzte antzezlanen gaiak, sortu dituzte gidioak eta kartelak, eta eurak ariko dira asteleheneko emanaldian aktore lanak egiten ere.

Ikasleek pentsatu dituzte antzezlanen gaiak, eta eurek sortu dituzte obren gidioak eta kartelak ere

Ikastolan sortutakoa Plateruena kafe antzokian aurkeztea, “Ibaizabal ikastola herrian, komunitatean kokatzeko” modua dela azpimarratu du Mireia Delgado irakasleak: “Ez gara burbuila bat munduan, eta eskolan ere herritik eta herriarentzako diren gauzak bultzatzea oso ikasbide polita da”.

Ikasketa prozesua esanguratsua izan dadin, testuinguru errealak behar direla gero eta argiago ikusten dutela dio Delgadok, eta baita, eginez ikasten dela gehien. Testuinguru horretan dago kokatuta Ibaizabal ikastolan Haur Hezkuntzako zikloko antzerki arloko lan hau. Ikasleak umeekin aurrez-aurre jartzen dira antzezlanak eskaintzeko, eta harreman horretatik ere asko ikasten dute.

Durangaldeko idazleen lanaren bueltan, Hitzzez eta Ahotsez

Urtarrilaren 21ean, Xabier Amurizaren berbaldiagaz hasiko da ekimena

> LITERATURA **Itsaso Esteban** Durangaldeko Hitzzez eta Ahotsez ekimenaren hirugarren edizioari ekingo diote, urtarrilaren 21ean, 19:00etan, Durangoko Arte eta Historia Museoa. Argitaratu ez dituen testuen inguruan ardaztuko du Amurizak *Bakarrizketa-Elkarrizketa; Mundua-Euskal Herria; Gu-Ni* izenburuko saioa.

Literaturaren inguruko ekimen honen aurreko bi aldietan, Joseba Sarrionandiaren literatura lana eta *itsasoa* gaiaren inguruko euskal idazleen obra hartu zituzten gaitzat. Hirugarren edizio hau, Durangaldeko gaur egungo idazleen zein klasikoaren inguruan ardaztuko dute.

Xabier Amurizaren berbaldiak zabalduko duen literatur-

zaleen ekimenaren otsaileko eta martxoko hitzorduak ere aurreratu dituzte ekintzaren bultzatzaileek, asteen. Azaldu dutenez,

bi hilabete horietan burutuko dituzte, Durangoko Bibliotekan, Durangaldeko idazleen obraren inguruko tertulia dialo-

gikoak. Aurreko bi urteetan bezala, irakurraldi zabal bategaz emango diote amaiera Hitzzez eta Ahotsez ekimenari: apirilaren 22an, Plateruenean. Irakurraldi horretan parte hartu gura duten guztiek, hitzezetaahotsez@gmail.com helbidean eman dezakete izena. Bi minutuko tartea izango du parte-hartzaile bakoitzak, egokituriko testua jendarean irakurtzeko.



'Itsasoa' gaiaren inguruko testuak hartu zituzten iaz gaitzat.

GEURE DURANGALDEA

MIREN AMURIZA
Bertsolaria



Ane

Aurtengo Gabonetan sarri samar errenditu naiz sofaren altzoan eta suertatu zaizkit ETB-ren enegarren errepikapen horietako zenbait. Bazkaloste batean *Euskaldunak* saioa tokatu zitzaidan; Hasier Etxeberria egongela elegante batean Bernardo Atxaga, Ane Igartiburu (Anboton 'n' bakarrekin, ezta?) eta Hilario Arbelaitz elkarrizketatzen. Igartiburu ari zen berbetan: paparazziz inguratuta bizitzea zeinen gogaikarria den, zelan jendeak berari buruzko irudi okerra duen... Hamar minutura orduko aldatu nuen katea enpatxuak jota (ez dakit bazkaritako kroketa eta turroiengatik edo programa haren azukrengatik izan zen).

Handik bizpahiru egunera, hara non, osterara ere, Anekin topo egin nuen. Ordukoan, baina, TVE 1-en; aste pare bat lehenago Rajoy eta Sanchez jarri ziren besaulki berean, Bertin Osbornerekin berriketan. Egia esanda, beti izan diot halako sinpatia bat neskari; umetan kuttun nituen ETB-ko telesailetan agertzen zelako, Elorriokoa delako edo... ez dakit. Eta han hasi nintzen margarita eskuan hartuta petaloei banan-banan tiratzen: maite dut, ez dut maite... Bigarrenenez entzun nion jendeak berari buruz uste duena ez datorrela bere izatearekin bat. Hainbestetan esateko, egia izango ote zen pentsatu nuen une batez. Gerotxoago, bere ibilbidean zehar eman duen albisterik pozgarriena zein izan den itaundu zion Osbornen: "nire lagun Feliperen koroatzea". Putz egin nion margaritari.

Gonzalo Etxebarriaren 'Alderrai', Durangon

Bere margolanak ipini ditu Etxebarriak ikusgai

> PINTURA I. E.

Urtarrilaren 9an inauguratu zuten, Durangoko Arte eta Historia Museoa, Gonzalo Etxebarria artista bilbotarraren erakusketa, eta urtarrilaren 31ra arte, Museo horretan egongo dira bere koadroak.

Alderrai izenburua du Etxebarriak Durangon ipini duen margo erakusketa honek, hara-hona edo noraezean dabile-nari erreferentzia eginez. Hiru hamarkada Zuberoako erbestean bizi izan da margolaria.

Koloretsuak dira Durangoko Arte eta Historia Museoa bilduriko lanok, formatu handikoak asko, eta Joseba Sarrionandia idazle iurretarrak idatziriko testuak lagundurik datoz erakusketaren katalogoan:

"Koadro bakoitza Gonzaloren abentura bat da, eta koadroak berak kontatzen dio abentura hori entzun nahi dionari", dio Sarrionandia lagunak Etxebarriaren lanari buruz.



Sorkuntza bekaren emaitza entzungai

Manuel Merladet Artxiboa aurkeztuko dute

> MUSIKA I. E.

Durangoko Udalak sustatzen duen Sorkuntza Bekaren 2014ko sariduna izan zen Ander Berrojalbiz musikari durangarrak eta Khantoria taldeko bere ki-deek diru-laguntza horregaz burutu duten lanaren emaitza aurkeztuko dute, urtarrilaren 21ean, Durangoko San Agustin kulturgunean. *Musika Durangon 1833. urtean* izenburua du, egunean, 19:00etan, aurkeztuko duten lanak. Khantoria taldearen estiloan, kontzertu-berbaldia izango da.

Batetik, Durangoko Astarloa Kulturgintza erakunde publikoak babesturiko beka deialdiaren harira sortutako webgunea aurkeztuko du Ander Berrojalbiz antzinako musikan aditu eta

biolin-jotzaileak. Manuel Merladet Artxiboa izeneko proiektua. Durangaldeko musikaren historiaren arloan egindako ikerketa lana iraunarazi eta gizarteratzeko helburuagaz, eta Durangoko Udalaren diru-laguntzagaz burutu du Ander Berrojalbizek urtarrilaren 21ean aurkeztuko duen lan hori.

Emanaldia ere bai

Durangorekin lotura zuten musikariek Lehen Gerra Karlistaren aurretik sorturiko konposizioak interpretatuko dituzte, gainera, Ander Berrojalbiz biolinista durangarrak, Maider López biola-jotzaileak, Virginia Gonzalo klabezin-jotzaileak eta Nerea Aizpurua biolontxelistak, San Agustingo hitzorduan.

PINTTO

Pintto Pintto

Anita Maravillas

Urtarrilaren 17an
18:00etan

Sanagustinalde, 12
Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango-udala.net

San Agustin KULTUR GUNEA

PLATERUENA

Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.eus

Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA

EGUNEKO MENUA

IGANDEETAN MENU BEREZIAK

URTARRILAK 15
21:30ean
DURANGO'S PUB QUIZ
LEHIAKETA

URTARRILAK 16
22:30ean
PETTI eta PIZTIAK
KONTZERTUA

URTARRILAK 18
17:00etan
ANTZERKI TXIKI
ANTZERKIA

Aitor Elordi (Mallabia, 1996) | Aspeko pilotaria

“Pilotari ausarta naizela uste dut, aukera dudanetan tantoa amaitzen saiatzen naiz”

Afizionatuetan makina bat txapelketa irabazi ostean, profesionaletako bideari ekin dio Aitor Elordik Aspe enpresan.



Aitor Elordi Mallabian, bere lehen urratsak eman zituen pilotalekuan.

> ESKUPILOTA J.D.

Urtarrilean debutatu zuenetik partidu bi jokatu ditu. Lehen goa 13-22 galdu zuen Iru-tagaz, Xala eta Tolosaren aurka. Bigarrenean lortu zuen profesioaletako lehen garaipena. Domeka honetan, Markinan jokatuko du.

Urtarrilak 3, Astelenako alda-geletako atean, kantxara begira, debutatzeko prest. Zenbat bider amestu izan duzu une horrekin?

Askotan. Hor afizionatueta gabiltzan denon ametsa horixe izaten da. Niri orain eman ditate aukera, eta oso pozik nago. Orain arte moduan entrenatzen jarraituko dut, aukerak ahalik eta ondoen aprobetxatzen saiatuko naiz.

Urduri izan zinen?

Iazko udan, Mallabian izan nuen proban, herritarren aurrean, nahiko trankil egon nintzen, eta debuteko partiduan ere ez nintzen halako nerbioso egon. Hasieran, banuen tentsio puntu hori, baina nahiko lasai egon nintzen.

Animorik ez zitzaizun falta izan
Mallabitar asko joan ziren. Herriko batzuek egundoko ahalgina egin zuten ahalik jende gehien joan zedin. Astelena bete egin zen, eta animorik ez zitzaizdan falta izan. Alde horretatik, oso pozik nago.

Debuteko partidua galdu, baina joan zen asteburuan irabazi egin zenuen.

Tolosak eta biok 22-20 irabazi

“*Ni orain naizena
izatera Josetxo
Areitiori esker
heldu naiz*”

genuen Retegi II eta Urruzolaren kontra, Bilbon. Profesionalak lehen garaipena! Partidu nahiko ona egin nuen, tanto dezente amaitu nituen eta gustura nago. Domekan, Markinan jokatuko dut: Irustak eta biok Mendizabal eta Aretxabaletaren aurka.

Nondik datorkizu pilotarako afizioa?

Berriatuatik hiru urtegaz etorri nintzen Mallabira bizitzera. Eskola amaitzean, aititak merien-

da ekartzen zidan, eta horregaz batera pilota bat be bai. Aitita-ren aldetik denak pilotazaleak dira, bera ere pilotaria izana zen. Nik uste berarengandik hartu nuela afizioa. Umetan, lau-bost urtegaz, beragaz jokatzan nuen, eskolako pilotalekuan. Gero, herriko pilota eskolan hasi nintzen. Askok futbola aukeratzen zuten, eta ez zebilen gazte askori. Horregatik, ostean, Iurretako pilota eskolan hasi nintzen.

Zuk ere futbola eta pilota, biak bateratzen zenituen gazteagoa zinenean.

Bai, koadrilako denak futbolean eta pilotan ibili izan dira. Heldu zen une bat, ikasketak, pilota eta futbola bateratu ezin nitue-
na. Lagun batzuek nahiago izan
zuten futbola aukeratu; nik argi
nuekan pilotan jarraitu nahi
nuela, barruak eskatzen zidan.

Afizionatueta txapelketa asko irabazi dituzu azken urteetan. Sarritan, hiru txapelketetan batera ibili izan zara.

Afizionatuetan, ondo edo goialdean bazabiltza, toki askotatik deitzen dizute. Ezetz esaten ez badakizu, denei baiezkoa ematen badiezu, horrek bere buelta dakar, eta, azkenean, sufritzen duena norbera izaten da: txispa galdu, eskuak mindu...

Gorka Otadui berriztarra makina bat bider izan duzu biko-tekide.

Turretara joan nintzenetik, urte askotan osatu dut beragaz biko-
tea, eta garaipen dezente lortu
ditugu elkarrekin: Euskal Herri-
ko txapelketa, Bizkaikoa eta be-
ste hainbat. Oso gustura ibili naiz
beragaz. Batera entrenatu dugu,
batera ikasi dugu Durangon...
ordu asko batera.

Gazte mailetan gehiago kostatu zitzaizun nabarmentzea?

Bai. Umetan atzean jokatzen nuen. Benjaminetan nahiko ondo ibili nintzen, baina haur-kategorian txiki geratu nintzen. Ez nuen indarririk, eta ez aurrera ez atzera geratu nintzen. Egia da beti etorri naizela nire adinekoe-kin alderatuta apur bat atzetik moduan. Geroago garatu dut gorputza. Iurretan, aurrean jo-

katzen hasi nintzen kadeteetan eta, gainera, denbora gutxian asko hazi nintzen. Bi gauzak batera gertatu ziren.

Josetxo Areitio izan duzu entrenatzaile. Zure pilotari garapenean, zer garrantzia izan du?
Hara joan nintzenetik gauza asko erakutsi dizkit. Ni orain naitzena izatera berari esker heldu naiz. Sei-zazpi urte eman ditut beragaz.

**Asegarceko pilotari bizkaitar-
rrak lurretan batzen dira gaur
egun. Zein da sekretua? Moti-
batzaile ona da?**

Ez dakit zelan azaldu. Bera da sekretua, barruan darama. Entrenatzeko sistema ona du, eta entrenatzen zabiltzala animatu egiten zaitu. Zer egiten duzun ondo, zer txarto, dena zaintzen du.

**Zu Aspen zabiltza eta Areitio Asegarceko prestatzailea da, baina beragaz jarraituko duzu. Bai. Aspeko Jokin Etxanizekin komentatu nuen, eta ez zegoela arazorik esan zidan. Beraz, alderdi fisikoa Iurretan landuko dut, eta teknikoa Eibarko Astele-
nan, Etxanizekin.**

**Pilotari moduan zelakoa zara,
eta non hobetu behar duzu?**

Pilotari ausarta naizela uste dut, aukera dudanetan, zirrikitu bat ikusten dudanean, tantoa amaitzen saiatzen naiz. Nire ustez horrek erakartzen ditu zaleak; aurreko tiki-takak. Horretan ahalegintzen naiz. Hobetu beharreko alderdia defentsa da.

Zein da zure erreferentea pilotan?

Txiki-txikitatik Aimar Olaizola gustatu zait. Nire idoloa izan da. Etxean bere argazkiekin egindako albumak ditut. Joan zen asteburuan, Bilboko partiduaren ostean jokatzeko zuen, eta orduan ezagutu nuen. Ez nion esan nire idoloa zenik. Aurre-rago ere egongo da hori esateko denbora (barreak).

Inoiz bere kontra jokatzeko aukerarik bazenu...

Bigarren amets bat betetzea izango litzateke. Baina, aurretik, nire bidea egin behar dut.

Bizkaiko Kros Txapelketan, 40 lagun paraolimpiarren mailan

Berrizen jokatu da Bizkaiko Kros Txapelketa, bigarren urtez jarraian



Ezkerretik hasita: Fran del Pino zinegotzia, Isold, García, Jose Mari Sainz federazioko kidea eta Migel Angel Munitxa Abadiño klubekoa.

> KROSSA Markel Onaindia Bizkaiko Kros Txapelketa hartuko du, domekan, Berrizetik, bigarren urtez jarraian. Herrialdeko korrikalaririk onenak ikusteko aukera egongo da ber-

tan, eta kroserako prestatutako ibilbide gorabeheratsuak interes handiagoa emango dio probari. Gainera, iaz baino partaide gehiago etorriko dira, 330etik 400 ingurura igo baita kopurua.

Horietatik guztietatik, 40 inguru, paraolimpiarren mailan lehiatuko dira.

11:50ean irtengo dira paraolimpiarrekoak. Euren arteko mailaren arabera, batzuek itzuli

bat emango diote kilometroko ibilbide txikiari, eta buelta bi beste batzuek. Eguaztenean egindako aurkezpenean, “aurten paraolimpiarrak sartzeko egindako ahalegina” eskertu zuen Orlan Isoird alkateak.

Iraia Garcíaen gustukoa

Paraolimpiarrek eta gaztetxoek egingo duten ibilbide laburraz aparte, gainerako korrikalariak bigarren zati bat bete beharko dute, Berrizburu alboko basoan. Gorabehera horiek asko eragin dezakete, eta gaur egun krosetako proba askotan ibilbide lauagoak ikusten diren arren, Iraia García zornotzarraren gustukoa da behintzat. “Alfonbretara ohituta gaude, baina krosa desberdindu egin behar da bideko lasterketetatik. Iaz asko gustatu zitzaidan Berrizko ibilbidea, eta aurten, errepikatuko dela jakitean, asko poztu naiz”. Garciak txapela jantzi zuen iaz, eta aurten ere faborito izango da. 12:15etan hasiko da nesken proba.

Mutiletan, David García, Oier Ariznabarreta eta Ekaitz Kortazar durangarrak aurreko postuetan sartzen ahaleginduko dira, 13:00etatik aurrera.

ADITUAREN TXOKOA

KEPA ARROITAJAUREGI

Pilota teknikaria



Urte berri on!

Garai hauetan, hasten dugun urteari onena eskatzen diogu beti. Berdin egingo dugu baita bizkaitar pilotarientzat ere, are gehiago durangaldekoentzat, non profesional berri bat dugun.

Bizkaitar pilotazaleak ilusioz begiratzen du 2016a, baina kostako da aurrekoa berdintzea. Urrutikoetxeak urte askotako lehorteari amaiera eman deutso, nola gainera, bakarkako bi tituluen jabe eginaz. Orain, bera da erreferente -oraindik Irujo eta Aimar gainetik ditu- eta inoiz galduko ez duela pentsatuta dago bat baino gehiago. Dena den, etorriko dira garai okerragoak, eta jakin beharko du irabazitako guztia barneratu eta kudeatzen. Mutil lasaia da Mikel, eta ea ‘txakalaldiak’ gainditzen ondo asmatzen duen. Animo!

Dena den, bada animo gehiagoren beharrean dauden hainbat pilotari bizkaitar, asko berto-bertokoak. Berasaluze II da euren artean; binakakoan, Beroizekin batu zutenean, jakina zen sufritzeko lehiaketa zuela. Bere maila ematen ari bada ere, Pablo ezin da 22ra ailegatu. Elordi debutatu berriak ere beharko du aupadatxo. Bere lana, orain, mailara egokitzea. Zabala, Elezkano eta Iza, lesioen ostean, joko onena berreskuratzeakotan ari dira lanean. Animo!

Amateurretan neskak izango ditut gogoan, Tornosolokoak. Pradera eta Etxaniz, bihar, Euskal Kluben Ligako finala lortzekotan arituko dira, Etxarrin. Kontra Hernani-ko taldea, eta bertan, beste mallabiar bat, Araiztegi. Zorte on denei!

Aitor Bugallo ziklista ohia hil da, auto istripuan

> TXIRRINDULARITZA J.D.

Atzo goizean Berrizen izandako auto istripuan Aitor Bugallo txirrindulari ohia hil zen. Ez beharra goizeko 06:00etan lanera zihoala gertatu zen, Trabakuako igoeran. Istripu berean, beste autoan zihoan 35 urteko mallabiarra Galdakaoko ospitalera eramane zuten, zaurituta.

Bugallo, gasteiztarra jaioz, urte askoan Durangon eta Abadiñon bizi izan zen. 1996tik 1998ra txirrindulari profesionala izan zen Euskadin eta Euskaltel Euskadi taldeetan.

David Etxebarria txirrindulari ohi abadiñarra bere laguna zen, koadrila berekoa. Une samingarri honetan ANBOTO-

ren deiari adeitsu erantzun dio Etxebarriak: “Ona, jatorra eta zintzoa zen”, gogoratu du. Biak adinkideak ziren —42 urte— eta 12 urte zituztenetik elkar ezagutzen zuten. Cafés Baqué



AITOR BUGALLO

taldean elkarrekin ibili ziren kadete mailatik aurrera. Afizionatueta asko ibiltzen zen txirrindularia zela gogoratu du Etxebarriak: “Gogoan dut gazte mailako urtean berak zortzi lasterketa irabazi zituela eta nik

zazpi. Asko zebilen”.

Erkaitz Elkoroiribe abadiñarrak ere betidanik ezagutzen zuen, hamar bat urte gaz txirrindularitza eskolan elkarrekin hasi zirenetik. Elkoroiribe urte bat nagusiagoa da eta, gazte mailetan sarritan (kadeteetako eta gazteetako urte banatan) ibili ziren elkarrekin: “Txirrindulari listoa eta azkarra zen. Beraz, bost-hamar txirrindulariko ihesaldietan beti irabazteko faboritoetan artean zegoen”. Pertsona moduan “fenomeno” bat zen: “Horrelako kasuetan hori esan ohi da, baina Aitorren kasuan ezin daiteke besterik esan. Kriston mutila zen. Sekula ez nion etsai bat ezagutu”. Euskadi taldean ere urtebetez ibili ziren elkarrekin.

Ruben Gorospe txirrindulari ohi mañariarrak Euskadi taldean ezagutu zuen taldeko masa-

jista zela. Ondo ezagutzen zuen. Gorospek ere afizionatu mailan Bugallok eskainitako maila azpimarratu du: “Oso ondo aritu zen, maila handian”. Euskadi taldean ez zuen lasterketarik irabazi, baina bere “ausardia” azpimarratu du: “Oso lehiakorra zen eta ihesaldiak hartzen trebea”. Taldearen zerbitzura lan egiteko ez zuen sekula arazorik: “Esanekoa, langilea, jatorra eta zintzoa zen. Dohai horien sailkapenik balego, denetan podiumean egongo zen”. Txirrindularitza utzi ostean, urte askoan BH enpresan lan egin zuen Bugallok. Gaur egun Orbean zebilen.

Eneritz Iturriaga txirrindulariak ere ezagutzen zuen Bugallo eta bere izaera “noble eta lagunkoia” azpimarratu ditu: “Eskualdeko txirrindularitzaren loraldia izan zen sasoiko protagonistetako bat izan zen”.

Lekuan lekuko egutegia

Ohiko saltokietan salgai

2016
Durangaldeko egutegia

ABADIÑO Petxo / Wankadeguna
ATXONDO Kizko Añorbe
BERRIZ Randa
DURANGO Matencoba / Hitz elizberritza
ELORRIO Uruy

GARAI Urteaga
IURRETA Izurtza
MALLABIA Mañaria

OTXANDIO Otxandio
ZALDIBAR Zaldibar
ZORNOTZA Zornotza



